

MERKATU SEGMENTAZIOA

Gure artikuluak bereziak izatean, ezin izango gara merkatu masibo batean sartu. Nahiz eta gure produktuak edozeinek erosi ahal duen, ailegatu nahi dugun bezeroak adin ertaineko emakumeak izango dira batez ere. Materiala dela eta, produktuak ekoizteko kostuak altuak izango dira, eta orduan, salmenta prezioa ere bai. Orduan, logikoki, 20-40 urte tartean dauden emakumeak izango dira bezero gehienak, errenta eta ikasketa maila batzuk izatea lagungarria izango delako gure produktuak eskuratzeko.

Horretaz gain, bezero mota horretan zentratzea erabaki dugu, gure ustez, emakumeek kontzientzia handia izaten dutelako gai horretan eta adin ertainekoek interesatutagoak daudelako moda jarraitzen.

